



2. DOKUMENTUA

BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOAREN ARAZKETA-INSTALAZIOETATIK DATORREN LOHI DESHIDRATATUA BALORIZATZEKO ZERBITZURAKO PRESKRIPZIO TEKNIKO PARTIKULARREN AGIRIA

1. XEDEA

Kondizio-agiri honek xedetzat du zehaztea lohi deshidratatua —hain zuzen ere, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren hondakin-urak arazteko instalazioetatik datorrena— kargatzeko, garraiatzeko eta balorizatzeko lanak zer kondiziotan egin behar diren (EHZ 190805), indarrean dagoen araudiari jarraikiz.

2. LURRALDE-EREMUA

Lehiaketa honen xede diren lohi deshidratatuak BBUPek kudeatutako hondakin-uren araztegi (HUA) hauetan sortzen dira: Galindo, Arriandi, Gorliz, Gueñes, Lekeitio, Markina, Mungia, Urduña, Ondarroa, Lamiaran, Muskiz eta Bakio.

I. eranskinean instalazio bakoitzaren kokapena adierazten da.

Kontratuaren indarraldian jardueran hasten diren saneamendu-instalazioak eta BBUPek ustiatzen hasitakoak kontratuaren xedera gehituko dira, eta horrek ez dio BBUPi ekarriko haietan sortutako hondakina balorizatu eta garraiatzearen ondoriozkoa ez beste kostu gehigarriarik.

3. KARGA ETA GARRAIOA

Kontratu honek barne hartutako HUAetan lohiak biltegitratzeko sistema bat dago, eta horri esker lohi kantitate nahikoa bermatzen da iraulki-kamioi edo dunper baten bidaia oso bat gutxienez egiteko, bai eta halakoak grabitate bidez kargatzeko behar besteko altuera librea edukitzeko ere.

Honako hau da kargatzeko gunen bakoitzean erabili beharreko ibilgailu mota:



HUA	IBILGAILUA
Galindo	Iraulki-kamioia
Mungia	Iraulki-kamioia
Arriandi	Iraulki-kamioia
Lekeitio	Iraulki-kamioia
Gorliz	Iraulki-kamioia
Gueñes	Iraulki-kamioia
Markina	Iraulki-kamioia
Ondarroa	Iraulki-kamioia
Urduña	Iraulki-kamioia
Lamiaran	Iraulki-kamioia
Muskiz(*)	Iraulki-kamioia
Bakio(*)	Iraulki-kamioia

(*): lohiak kudeatzeko kondizioa da araztegiok eraberritzea

Lohiak biltzeko orduan mezu elektronikoa bidaliko zaio (eskaera) zerbitzuaren enpresa adjudikazioduneko arduradunari. Abisua helarazteko unean bestelako eperik adierazi ezean, zerbitzua 24 orduko epean egin beharko da, abisua jasotzen denetik zenbatzen hasita. Enpresa adjudikaziodunak behar besteko aurrerapenaz adierazi beharko ditu matrikularen gidariari buruzko datuak eta kamioiaren matrikula, BBUPek lekualdaketaren agiriak presta ditzan.

Oro har, hondakinen bidalketa lanaldira egokituko da (astelehenetik ostiralera, 8etatik 17etara). Nolanahi ere, zerbitzua lohia premiaz eraman beharreko ezohiko egoeretan emateko, kontratistak erreserbako langile batzuk izango ditu abisuak telefonoz jasotzeko, eta prozedura bat antolatuko du zerbitzua ohiko ordutegitik kanpo (larunbat, igande eta jaiegunetan) emateko, BBUPi kalterik ekarri gabe.

Balorizazio-instalazioa lohia jasoko dela egiaztatuko da iristeko ordua eta pisua zehaztuz.

Galindoko HUAn ibilgailua hutsik dagoela eta bete ostean pisatuko dute, bertan baskula ziurtatua baitago, garraiatu eta ondoren tratatu beharreko hondakinen pisu garbia zehazteko.

Baskularik ez dagoelako edo matxuratua dagoelako datu hori lortzerik ez badago, baliozkotzat joko da hondakinaren kudeatzaileak jakinarazitako pisua. Pisua indarreko kalibratze-ziurtagiria duten baskulen bidez neurtuko dute.

3.1. GARRAIOA

Garraioaz arduratzen den enpresak iraulki-kutxa olonaz estali beharko du lohia hartutako instalaziotik irten aurretik. Hala egin ezean, kondizio horietan garraiatutako lohiagatik ziurtatu beharreko zenbatekoa % 30 gutxituko da. Bigarrenaz gertatu dela antzemanaz gero, bigarren garraioaren zenbatekoa % 50 gutxituko da. Hirugarrenez gertatzean eta hurrengoetan, BBUPek ez du zenbatekorik ordainduko garraioei dagozkien kantitateak balorizatzeagatik.

3.2. KARGA-KONTROLA



Zerbitzuaren adjudikaziodunak eskatutako zerbitzuaren kontrol-artxibo bat egingo du, honako eremu hauek gutxienez zehaztuta:

- Hondakina eramateko noiz eskatu duten
- Hondakina noiz eraman duten
- Hondakina non hartu duten
- Jatorrizko pisu garbia (halakorik badago)
- Helmugako pisu garbia
- Garraiatzeko erabilitako ibilgailua (matrikula)
- Gidaria
- Oharrak

Oharren eremuan, hala badagokio, kondizio-agiriaren errekerimenduak zergatik bete ez dituzten adieraziko dute.

Karga kontrolatzeko artxiboko eremu batean lekualdaketa bakoitzari lotutako identifikazio-dokumentazioaren zenbakia zehaztuko da.

4. HONDAKIN-LAGAPENEN DOKUMENTU-KONTROLA

Hondakin-lagapen guztien dokumentu-jarraipena eta -kontrola egingo dira dagozkien identifikazio-dokumentuen bidez. Hondakina lekualdatu ondoren, enpresa adjudikaziodunak identifikazio-dokumentuaren B aldea osatu beharko du, onartutako kantitatea zehaztuz, eta kontratuaren arduradunak adierazitako helbide elektronikora bidali beharko du. Identifikazio-dokumentua pdf formatuan nahiz E3L formatuan bidaliko da.

Kontratuak iraun bitartean EAEko ingurumen-organoak hondakinak kudeatzeari buruzko informazioa kudeatzeko sistemarik hartzen badu, adjudikaziodunak bere prozedurak eta tresnak (softwarea, hardwarea, ziurtagiri digitalak, etab.) ahalik eta lasterren egokitu beharko ditu. Nolanahi ere, ingurumen-organoak egokitzeko ezarritako epeak bete beharko ditu.

Hondakin-erretiratzeak hileru ziurtatzeko, hileko lanen zerrenda baloratua egiteko datan dokumentazio guztia duten lekualdaketak baino ez dira ordainduko.

Ez da kamioirik irten beharko dagokion lekualdaketa-dokumenturik gabe (identifikazio-dokumentua ere deitua).

5. HONDAKIN-KONTROLARI BURUZKO ALDERDIAK

BBUPek, kontrol- eta jarraipen-sistemari buruzko 3. artikuluan zehaztutakoaz gain, indarrean dagoen araudian zehaztutako konposizio-kontrol orokorrak egingo ditu, bai eta administrazio publiko eskudunak kasu zehatz horretarako ezartzen dituen kontrol espezifikoak ere.

BBUPek, bi hilean behin, hondakinen konposizioari buruzko kontrol analitikoak aurkeztuko ditu.

Balorizatzeko instalazioen titularrak bere kontura egingo ditu beharrezkoak diren kontrolak, bai bere prozesuak, bai lortutako produktuaren azken helmugak eskatutakoak.



6. LOHI DESHIDRATATUA KUDEATZEA

Lizitatzailleek eskaintzak aurkezteko unean baimenduta dituzten hondakin-tratamenduak eskaini beharko dituzte.

Eskaintzen dituzten tratamenduek hondakina balorizatzea lortu behar dute honako hauetan xedatutakoari jarraikiz: urriaren 29ko 1310/1990 Errege Dekretua; ekainaren 7ko AAA/1072/2013 Agindua, nekazaritza-sektorean arazteko lohiak erabiltzeari buruzkoa, eta lohiaren aplikazioa egiten den autonomia-erkidegoan indarrean dagoen araudia, edo ekainaren 28ko 506/2013 Errege Dekretua, ongarrizko produktuei buruzkoa, betez. Edo kondizio-agiri honen helburuari jarraikiz antzeko beste erabilera batzuetarako aplikatzen duen araudia.

Nolanahi ere, dagozkien prozesuei aplikatu beharreko legeriak xedatutakoa beteko dute.

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren iritziz arazketako lohiak zuzenean aplikatzea, hau da, gure instalazioetatik irten bezala (deshidratatua), ez da kudeaketa egokia; horrenbestez, kudeatzeko modu hori proposatzen duen eskaintza prozedura honetatik baztertuko da.

Lizitatzailleak egiaztatu beharko du proposatutako tratamendurako Ingurumenaren arloko organo eskudunak emandako baimenak dituela.

AKPAn HUA bakoitzetik datorren lohiaren neurketa zenbatetsia adierazten da; proposamen ekonomikoa kalkulatzeko balio izango du. HUAetan kudeatu beharreko kantitateak banaketa ia uniformeak dute, prozesuen ondoriozko aldaketekin. Kasu guztietan, hornitutako kantitateek baliteke alde handiak izatea.

Adjudikaziodunak 180 tona eguneko tratamendu- edo biltegiatze-gaitasuna izango du, gehienez ondoz ondoko 7 egunetan Galindotik eta gainerako araztegietatik datorren lohirako.

Eskaintako prezioa ez da inola ere aldatuko aipatutako kantitateen eta benetan sortutakoen artean aldeak daudelako.

Era berean, II. eranskinean HUAetako lohiaren karakterizazioa jasota dago, dituen metalei, solido totali eta solido lurrunkorrei dagokienez.



6.1. HONDAKIN-TRATAMENDUAREN KONTROLA

Lizitatzailerak bakoitzak hondakinetarako proposatutako tratamenduaren arabera, kudeatzaileak bete beharreko nahitaezko lege-betekizunak adieraziko dira —bai prozesuari, bai azken produktuari dagokienez—, eta haietaz gain, baita, nahitaez bete beharrekoak ez izanagatik ere, BBUPEk hondakin-kudeaketa kontrolatzeko prozesuko hobekuntza gisa proposatutakoak ere.

BBUPetik datozen hondakinei aurreko apartatuan adierazitakoez gain egin beharreko analisiak, tratamenduaren aurrekoak nahiz ondorengoak, zerbitzuaren enpresa adjudikaziodunaren kontura izango dira.

6.2. HILEKO TXOSTENA

Adjudikaziodunak hilerok aurkeztuko du, paperezko formatuan eta fitxategi digital gisa, datuok barne hartzen dituen txostena: BBUPEko lohien urteko balantzea, kamioien hileko zerrenda, lohiaren hileko zerrenda (tratamendu mota barne), aplikatutako teknologiaren araberrako kontrol-datu erlatiboak, lortutako produktuaren helmuga eta adjudikaziodunak egoki irizitako bestelako alderdiak.

Enpresa adjudikaziodunak karbono-aztarna kalkulatu du eta zerbitzu horri baino ez dagozkion CO₂ baliokidearen tonen berri eman beharko du, eta, haiek kalkulatu ezean, honako datu hauek jakinarazi beharko ditu: erabilitako erregaiaren kontsumoa (litroak) eta mota, zerbitzurako erabilitako kamioi bakoitzak ibilitako tarteak (km) eta kamioien ezaugarriak (GMB eta sailkapena Europako araudiaren arabera).

Kudeatzaileak administrazio eskudunari bidalitako dokumentazioaren kopia jasoko da azken txostenean.

7. NEURKETA ETA ZERBITZUA ORDAINTZEA

Kondizio-agiri honen xede den hondakina garraiatzeko zerbitzuak zenbait kontrol behar ditu honako alderdi hauek direla eta:

- Garraiatutako hondakinen pisuen kontrola:
 - Ekoizpen-ratioetarako kontuan hartzeko.
 - Ebakutzearen ondoriozko zenbateko ekonomikoak ordaintzeko.
- HUAk kargatzeko itxarote-denboren kontrola, hauetan eragina baitu:
 - Ebakutzeko errendimenduan, egindako bidaia kopuruan.
 - Gehiegizko denboraren ondoriozko zenbateko ekonomikoen ordaintzea.

Hondakin tonako garraio-kontzeptuan aplikatutako prezioak, kostua kalkulatzeko, 2 orduko karga-denbora jaso behar du, bai Galindoko HUA, bai gainerako araztegietan.

BBUPEk aurrekotik gorako kargatze-denbora ordainduko du eskaintzan neurketa egiteko aurkeztutako kamioi-orduko prezio unitarioaren arabera.



7.1. GALINDOKO HUA

Hartarako, honako prozedura honi jarraituko zaio:

- Ibilgailua, HUAr iristen denean, baskulara bideratuko da, eta bertan sartzeko ordua eta kamioiak hutsik dagoela zenbat pisatzen duen jasoko da.
- Ibilgailua, HUAtik kargatuta irteten denean, baskulara itzuliko da, eta bertan irteteko ordua eta kamioiak beteta dagoela zenbat pisatzen duen jasoko da.

Galindoko baskularen matxuragatik aurrekoa egiterik ez dagoenean, honela egingo da kontrola:

- Sartzeko eta irteteko ordu-kontrola, txandaburuak sinatutako kontrol-bale baten bidez.
- Fakturatu eta kontuan hartu beharreko pisuaren kontrola (ekoizpen-ratioen ondorioetarako), kudeatzailearen instalazioko baskularen bidez.

7.2. BESTE ARAZTEGI BATZUK

Baskularik ez duten araztegietan, Galindoko HUako baskularen matxuragatik kontuan hartutako modu berean egingo da kontrola.

Sartzeko/irteteko balea enpresa ustiatzailearen arduradunak sinatuko du.

8. KONTRATISTAREN ETA PARTZUERGOAREN ARTEKO HARREMANAK

Kontratu honen kontratista adjudikaziodunak ordezkari bat izendatuko du, eta Partzuergoarekiko harremanen arduraduna izango da.

Halaber, Partzuergoak kontratuaren arduradun bat izendatuko du, eta hura ez dagoenean, Galindoko HUako saneamendu-ustiapeneko zentroko langileek jardungo dute.

Sestaon, 2024ko azaroan
Kontratuaren arduraduna,

Izptz.: Urko Sagasti Bilbao.



1. ERANSKINA
HUA-AK NON DAUDEN

Kokapena	Udalerria	GPS X	GPS Y
ARRIANDIKO HUA	IURRETA	527215,1136	4781012,746
GALINDOKO HUA	SESTAO	500181,11	479499,89
GORLIZKO HUA	GORLIZ	504882,33	4806604,26
GUEÑESKO HUA	GUEÑES	494300,589	4782745,017
LEKEITIOKO HUA	LEKEITIO	540264,766	4800283,484
MARKINAKO HUA	MARKINA-XEMEIN	540898,2961	4791603,054
MUNGIAKO HUA	MUNGIA	512453,8242	4800943,588
ONDARROAKO HUA	ONDARROA	546286,3913	4797812,733
URDUÑAKO HUA	URDUÑA	499523,494	4762128,101
LAMIARANGO HUA	BERMEO	523272	4790349
MUSKIZKO HUA	MUSKIZ	490796	4798360
BAKIOKO HUA	BAKIO	516247	4808989